

## Tokiko Zuzenbidearen Euskal Behatokiaren buletin digitala

Tokiko Zuzenbidearen Euskal Mintegia  
EUDEL/IVAP

2019-02-25

### ARAUGINTZAKO PROIEKTUAK

#### Euskal enplegu publikoari buruzko lege-proiektua

2019ko otsailaren 11ko bileran, Mahaiak erabaki zuen lege-proiektua izapidetzeko onartzea, eta agindu zuen Erakundeen, Segurtasunaren eta Gobernu Publikoaren Batzordera igortzeko eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko.

[Lege-proiektuaren testua](#)

#### Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen jasangarritasun energetikoari buruzko lege-proiektua

2019ko otsailaren 4ko bileran, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Batzordeak lege-proiektu honen irizpenaren txostena onartu zuen.

[Irizpena](#)

#### Euskal Administrazio Publikoen zehatzeko ahalarri buruzko lege-proiektua

Eusko Jaurlaritzak 2018ko azaroaren 27an onartutako lege-proiektu honetan 45 artikulua, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen daude. Administrazioari arau-hauste guztien prozedura arautzen du, berariaz baztertuta dauden horiek salbu: trafikoko eta bide-segurtasuneko zehapenak, zerga-zehapenak, aduana-zehapenak, funtzionarioen diziplina-prozesuak edo administrazioarekiko kontratuen urraketak, besteak beste (1. artikulua).

[Proiektuaren testua](#)

Beste dokumentu  
interesgarri batzuk

#### Doktrina-azterlanak

*¿Selección o autoengaño? Doce tesis sobre el momento actual de "la selección" en el empleo público autonómico y local*, Rafael Jiménez Asensio (egilearen blogean argitaratua, 2019ko otsailaren 3an).

- *¿Selección o autoengaño? Doce tesis sobre el momento actual de "la selección" en el empleo público autonómico y local*, (amaiera) Rafael Jiménez Asensio (egilearen blogean argitaratua, 2019ko otsailaren 6an).

- *Es posible colaborar en la gestión del empleo público en el ámbito local*, Ana Gutiérrez Triano (IDL-AUM blogean argitaratua, 2019ko otsailaren 20an).

- *La temporalidad en las administraciones Locales y como planificar su eliminación*, Rafael Sánchez López ("El nuevo funcionario con habilitación de carácter nacional" blogean argitaratua, 2019ko otsailaren 15ean).

- *Crónica de jurisprudencia en materia de transparencia y buen gobierno*, Severiano Fernández Ramos y José M.ª Pérez Monguió (INAPen La Administración al día buletinean argitaratua, 2019ko otsailaren 13an).

- *El Delegado de Protección de Datos en las Administraciones públicas: Ombudsman de los datos personales*, Eduardo Gamero Casado (INAPen La Administración al día buletinean argitaratua, 2019ko urtarrilaren 31n).

- *Crónica de jurisprudencia en materia de licencias*, Amaya Casado Echarren (INAPen La Administración al día buletinean argitaratua, 2019ko urtarrilaren 24an).

- *El margen competencial de las entidades locales en el ámbito del empleo*, Daniel Pérez del Prado, (IDL-AUM-en blogean argitaratua, 2019ko urtarrilaren

16an).

- *"Zanahoria sin palo" (\*) (Régimen de sanciones en la nueva Ley de Protección de Datos: su aplicación al Sector Público)*, Rafael Jiménez Asensio (egilearen blogean argitaratua, 2019ko urtarrilaren 16an).

- *El "plan anual normativo" de los ayuntamientos*, Francisco Velasco Caballero (IDL-AUMen blogean argitaratua, 2019ko urtarrilaren 30ean).

- *El Tribunal Supremo considera que la liquidación definitiva del ICIO está vinculada al contenido de la liquidación provisional*, Diego Marín-Barnuevo Fabo (IDL-AUMen blogean argitaratua, 2019ko urtarrilaren 23an).

### Sektore Publikoko Kontratuen Legeari buruz

- *Contratos menores. Limitaciones impuestas en la Ley de contratos del Sector Público de 8 de noviembre de 2017*. Cristina Clementina Arenas Alegría. (INAPen La Administración al día buletinean argitaratua, 2019ko urtarrilaren 24an).

- *El control del funcionamiento de contratos de servicios públicos. Algunas experiencias*, Carmen Navarro Gómez, (Instituto de Derecho Local-en blogean argitaratua, 2019ko otsailaren 6an).

- *Publicidad, transparencia y concurrencia empresarial como indicadores de calidad de la compra pública*, Mercè Corretja Torrens (Kontratazio Publikoaren Behatokiko Iritzia atalean argitaratua, 2019ko urtarrilaren 17an).

- *(In)Cumplimiento de la LCSP por los ayuntamientos. "Con los datos en la mano"*, "Datua eskuan", Concepción Campos Acuña (egilearen blogean argitaratua, 2019ko urtarrilaren 16an).

- *¿Se debe aplicar el artículo 86 LRJSP a los medios propios locales?*, Silvia Díez Sastre (Instituto de Derecho Local-en blogean argitaratua, 2019ko urtarrilaren 9an).

- *La contratación laboral en las Administraciones Públicas tras la STC 122/2018*, Luis Gordo González (Instituto de Derecho Local-en blogean argitaratua, 2018ko azaroaren 28an)

- *La integración ambiental en la contratación pública: el certificado de eficiencia energética de los edificios*, M.ª Ángeles Fernández Scagliusi (INAPen La Administración al Día buletinean argitaratua, 2018ko abenduaren 7an).

- Estatuko Administrazio Kontratazioaren Aholku Batzordea:

- ° **40/18 espedientea, 2018ko abenduaren 10ekoa.** Kontratu txikiak. Gastua eta faktura baimentzea.
- ° **69/18 espedientea, 2018ko urriaren 10ekoa.** Prozedura ireki sinplifikatuko egintza publikoa.

### Toki-hauteskundearen egutegia

**2019ko maiatzaren 26an egingo diren toki-hauteskundearen egutegia.** Bartzelonako Diputazioko Idazkaritza nagusiak egindako agiria, Democracia y Gobierno Local Fundazioaren webgunean argitaratua.

### Berdintasunerako jardunbide egokien bankua

Emakundek, Eusko Jaurlaritzako sailekin, foru- eta toki-administrazioekin eta EUDELekin lankidetzan, Berdintasunerako Jardunbide Egokien Bankua (BJEB) jarri du martxan. BJEB aplikazioaren helburua Euskal Autonomia Erkidegoan nahiz handik kanpo erakunde publikoek eta pribatuek berdintasunaren gainean praktikan jarri dituzten jardunbide egokiak jaso eta zabaltzea da. [Informazio gehiago eta jardunbideen bankurako sarbidea.](#)

### Finantza Publikoen Euskal Kontseilua (2019ko otsaila)

Finantzen Euskal Kontseiluak 2018ko ekitaldian aldundiek itundutako zergen zioz jasotako bilketaren itxiera ziurtatu du. Ekitaldia 14.981,5 milioi euroekin likidatu zen, hau da, bilketaren urtearteko igoera % 3,5koa izan da.

Eusko Jaurlaritzak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Aldundiek eta udalek erabaki dute aparteko funts bat eratuko dutela baliabide ekonomikoaren banaketan egon daitezkeen desorekak zuzentzeko.

[Informazio gehiago](#)

## Arabako Toki Administrazioaren eta Finantzen Lurralde Kontseilua

TEFFFaren likidazio positiboari esker 13,6 milioi euro gehiago banatu ahal izango dira Arabako toki erakundeen artean

Gasteiz, 2019ko otsailaren 19a. Arabako Toki Administrazioaren eta Finantzen Lurralde Kontseiluak gaur egin du bilera jakitera emateko joan den astean eginiko Finantzen Euskal Kontseiluaren ondoren eguneraturiko datuak

Arabako toki erakundeek 13.501.095 euro gehiago izango dute. Horrela eman du jakitera Arabako Foru ordezkariak EUDELeko ordezkariak gaur arratsaldean Arabako Foru Aldundian egin den Arabako Toki Administrazioaren eta Finantzen Lurralde Kontseiluan (ATAFLK), Toki Erakundeen Finantzaketako Foru Funtzaren (TEFFF) amaierako likidazioa 229.547.051 eurokoa dela zehazteaz gain.

[Informazio gehiago](#)

## Bizkaiko udalerriek aurten 50 milioi gehiago dituzte Udalkutxa likidatu ondoren

Udal-finantziarioaren funtsaren likidazioa Finantzen Lurralde Kontseiluan udalei 50,2 milioi euro ordainduta likidatu da, 869,5 milioi eurora iritsi arte, hau da, aurrekontuan zehaztu zena baino % 6,1 gehiago. Hala, 2018ko ekitaldian Bizkaiko bilketan egondako hazkundea udalerrien finantziario handiagoan ere ikus daiteke.

[Informazio gehiago](#)

## Gipuzkoako udalerriek FOFIMen aurreikusitakoa baino 29 milioi euro gehiago izango dituzte

Udal Finantziarioako 2018ko Foru Funtzak 2018. urtea 515 milioi euroekin itxi du eta, hala, marka hautsi du laugarren ekitaldiz jarraian.

Udal Finantziarioako Foru Funtzak, FOFIM siglarekin ezagunagoa denak, guztira 515 milioi euroko hornidurarekin itxi zuen 2018ko ekitaldia. Gipuzkoako Foru Aldundiak zenbateko honen udal-banakapena eta zehaztasunak zein diren jakinarazi die lurraldeko udalerrietako ordezkariak (EUDEL), gaur [2019ko otsailaren 15a], Donostian egin den Finantzen Lurralde Kontseiluan. Hartara, funtsak marka hautsi duen laugarren ekitaldia da, jarraian, eta ia % 10 igo da aurreko ekitaldiaren aldean eta % 6 aurrekontuan zehaztutakoaren gainean. Hori guztia dela eta, udalerriek 29 milioi gehiago izango dituzte.

[Informazio gehiago](#)

## EUDELek udalerrri adimentsuen lehen sarearen oinarriak finkatu ditu

Lankidetzan aritzeko eta ikasteko testuingurua garatzea da azken xedea, udalek elkarrekin sor ditzaten udalaren eta gizartearen berrikuntzarako proiektu integralak, eta, hala, irtenbideak eskaini dakizkien herritarrei, enpresei, ekintzaileei eta gainerako tokiko agenteei.

Sare hau udalenzako "HerriSmartik" programan sartzen da, EUDELek eta Eusko Jaurlaritzak sustatua bera, eta betan lankidetzan aritu dira, era berean, hiru Foru Aldundiak ere.

Imanol Landa buruak udalei gonbidapena egin die EUDELen barruan etorkizuneko sarea eraiki dezaten, tamaina desberdinetako udalerrietarako baliagarriak diren "proiektuen eta ekimen ereduak" bidez, eta Europako kudeaketa aurreratu 'Smart City' politikekin bat.

[Informazio gehiago](#)

## XEDAPEN ARAUTZAILEAK

ogoboe2009

### Estatuko legeria

**1/2019 Lege Organikoa, otsailaren 20koa;** horren bidez, aldatu egin da Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa, Europar Batasunak finantzen eta terrorismoaren arloan dituzten zuzentzarauak baliatzeko eta nazioarteko gaiak jorrazteko (2019ko otsailaren 21eko BOE, 45. zk.).

**3/2019 Errege Dekretua, otsailaren 8koa,** Zientzia, Teknologia, Berrikuntza eta Unibertsitatearen arloko premiazko neurriak buruzkoa. (2019ko otsailaren 9ko BOE, 35. zk.).

**1/2019 Errege lege-dekretua, urtarrilaren 11koa,** Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalako eskumenak erkidego-zuzenbidearen ziozko eskakizunetara egokitzeko

premiazko neurri buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/72/CE eta 2009/73/CE zuzentarauekin lotuta, elektrizitatearen eta gas naturalaren barruko merkaturako arau komunak mintzagai. (2019ko urtarrilaren 12ko BOE, 11. zk.).

**Ebazpena, 2019ko otsailaren 6koa**, Altxorraren eta Finantza Politikaren Zuzendaritza Nagusiarena, honako honen 1. eranskina eguneratzen duena: Ebazpena, 2017ko uztailaren 4koa, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiarena, autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen zorpetze-eragiketetan eta eratorrietan aplikatzekoa den finantza-zuhertasuneko printzipioa definitzen duena. (2019ko otsailaren 8ko BOE, 34. zk.).

**PCI/86/2019 Agindua, urtarrilaren 31koa**; horren bidez, Ministroen Kontseiluaren 2018ko abenduaren 7ko Akordioa argitaratu da, zeinaren bidez onartzen baita Estatuko Administrazio Orokorreko, bere erakunde autonomoetako eta Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileetako Kontratazio Publiko Ekologikoaren Plana (2018-2025). (2019ko otsailaren 4ko BOE, 30. zk.).

**PCI/154/2019 Agindua, otsailaren 19koa**; horren bidez argitaratu egin da Ministroen Kontseiluaren 2018ko azaroaren 30eko erabakia, langile funtzionarioen, estatutupekoen, eta arlo laboral, zibil eta militarreko langileen hautaprobek deialdiak eguneratzeko jarraibideak onartzen dituen, enplegu publikoa eskuratzeko orduan bazterkeriako hainbat kausa mediko ezabatze aldera. (2019ko otsailaren 20ko BOE, 44. zk.).

**1/2019 instrukzioa, urtarrilaren 23koa**, Hauteskunde Batza Orokorrarena, hainbat hauteskunde-prozesu daudenean kontu-hartzaileek duten botoari buruzkoa (Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoaren 79.1. artikulua). (2019ko urtarrilaren 30ko BOE, 26. zk.).

## 2018

**5/2018 Lege Organikoa, abenduaren 28koa**, genero-indarkeriaren esparruan Estatu Ituna ezarritz premiazko neurriak jasotzen dituen Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa erreformatzeari buruzkoa (2018ko abenduaren 29ko BOE, 314. zk.).

**3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa**, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa. (2018ko abenduaren 6ko BOE, 294. zk.).

**2/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa**, zeinaren bidez aldatzen den ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa, Hauteskundearen Araubide Orokorrarena, desgaitasuna duten pertsona guztien sufragio-eskubidea bermatzeko. (2018ko abenduaren 6ko BOE, 294. zk.).

**9/2018 Legea, abenduaren 5koa**, zeinaren bidez aldatzen diren 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen ebaluazioari buruzkoa, 21/2015 Legea, uztailaren 20koa, zeinaren bidez aldatzen den 43/2003 Legea, azaroaren 21ekoa, mendiei buruzkoa, eta 1/2005 Legea, martxoaren 9koa, zeinaren bidez arautzen den berotegi-efektuko gasak airetzeko eskubideen salerosketa-erregimena. (2018ko abenduaren 6ko BOE, 294. zk.).

**28/2018 Errege lege-dekretua, abenduaren 28koa**, pentsio publikoak goratzekoa eta gizarte-, lan- eta enplegu-arloko premiazko beste neurri batzuei buruzkoa. (2018ko abenduaren 29ko BOE, 314. zk.).

**24/2018 Errege lege-dekretua**, abenduaren 21ekoa, zeinaren bitartez onetsi diren ordainsarien arloko premiazko neurriak sektore publikoaren esparruan. (2019ko abenduaren 27ko BOE, 312. zk.).

**20/2018 Errege lege-dekretua, abenduaren 7koa**, Espainiako industriaren eta merkataritzaren sektoreko lehiakortasun ekonomikoa sustatzeko premiazko neurri buruzkoa. (2018ko abenduaren 8ko BOE, 296. zk.).

**1414/2018 Errege Dekretua, abenduaren 3koa**, Estatuko Administrazioak irailaren 26ko 2769/1980 Errege Dekretuaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoari errepideen alorrean eskualdatutako eginkizunak eta zerbitzuak gehitzen dituen. (2018ko abenduaren 5ko

BOE, 293. zk.).

**Ebazpena, 2018ko abenduaren 21koa**, Lurralde Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiarena, Aragoi-Estatua Lankidetzaren Alde Biko Batzordeak martxoaren 20ko 1/2018 lege-dekretuaren (sektore publikoko zenbateko txikiko kontratuetan gardentasun, azkartasun eta arrazionalizaziorako premiazko neurriei buruzkoaren) harira hartutako akordioa argitaratzen duena. (2019ko urtarrilaren 22ko BOE, 19. zk.).

**Ebazpena, 2018ko abenduaren 3koa**, Estatuko Administrazio Kontu-hartzailetza Nagusiarena; horren bidez aldatu egin dira 2015eko uztailaren 7koa, zeinaren bidez onartzen baitira eskariaren eredu normalizatu, komunikazio eta inbertsioaren egiaztapen materialerako egintzetarako eskariak ordezkarriaren bidez telematikoki egiteko prozedurak, eta 2015eko uztailaren 14koa, inbertsioaren egiaztapen materialaren eremuan funtzio kontu-hartzailea garatzeari buruzkoa. (2018ko abenduaren 19ko BOE, 304. zk.).



## Euskal Autonomia Erkidegoa

**3/2019 Legea, otsailaren 14koa**, hezkuntza-alorrean 2019ko ekitaldirako presako aurrekontu-neurriei buruzkoa. (2019ko otsailaren 19ko EHAA, 35. zk.)

**2/2019 Legea, otsailaren 14koa**, lansarien arloan 2019ko ekitaldirako presako aurrekontu-neurriei eta luzapenaren beste alderdi batzuei buruzkoa. (2019ko otsailaren 19ko EHAA, 235. zk.)

**1/2019 Legea, otsailaren 14koa**, diru-sarrerak bermatzeko errentaren arloan 2019ko ekitaldirako presako aurrekontu-neurriei buruzkoa. (2019ko otsailaren 19ko EHAA, 35. zk.)

**21/2019 Dekretua, otsailaren 12koa**, zeinaren bidez bigarrenez aldatzen baita larrialdi-egoerei aurre egiteko jarduera, zentro edo establezimendu zehatz batzuei ezartzen zaizkien autobabeserako betebeharrak arautzen dituen Dekretua. (2019ko otsailaren 22ko EHAA, 38. zk.)

**17/2019 Dekretua, otsailaren 5koa**, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena. (2019ko otsailaren 21eko EHAA, 37. zk.)

**-2018-**

**- 5/2018 Legea, azaroaren 29koa**, hirugarren aldiz aldatzen duena Euskal Herriko Errepideen Egitamu Nagusia araupetzeko Legea. (2018ko abenduaren 11ko EHAA, 237. zk.)



## Arabako Lurralde Historikoa

**1/2019 Foru Araua, urtarrilaren 16koa**, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 33/2013 foru araua aldatzekoa. (2019ko otsailaren 4ko ALHAO, 15. zk.).

**-2018-**

**71/2018 Foru Dekretua, abenduaren 28koa**, Foru Gobernuaren Kontseiluarena, Arabako Lurralde Historikoko 2018ko aurrekontua 2019ra luzatzeko irizpideak ezartzen dituena. (2019ko urtarrilaren 2ko ALHAO, 1. zk.).

**23/2018 Foru Araua, abenduaren 11koa**, Biltzar Nagusien 2019. urterako aurrekontuari buruzkoa. (2018ko abenduaren 19ko ALHAO, 146. zk.).

**22/2018 Foru Araua, azaroaren 28koa**, azaroaren 13ko foru gobernu kontseiluaren 4/2018 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko dena, Arabako zerga araudia egokitu dadilari buruz 2018 eta 2019ko ekitaldietan energia elektrikoaren ekoizpen balioaren gaineko zergan eta zerga berezietan egin diren aldatetara. (2018ko abenduaren 14ko ALHAO, 144. zk.).

**21/2018 Foru Araua, azaroaren 21koa**, aldatzen duena ekainaren 20ko 8/2018 Foru Araua, berrestekoa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta Arabako Foru Aldundiaren artean sinatu beharreko

hitzarmena, administrazio elektronikoko oinarrizko irtenbideak elkarri emateko. (2018ko abenduaren 14ko ALHAO, 144. zk.).

**20/2018 Foru Araua, azaroaren 21ekoa**, Arabako Hiri Hondakinen Prebentziorako eta Kudeaketarako Plana, 2017-2030, onartzeko. (2018ko abenduaren 14ko AHLAO, 144. zk.).



#### Bizkaiko Lurralde Historikoa

**6/2019 Foru Dekretua, otsailaren 12koa**, Bizkaiko Foru Aldundiarena, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 3ko 91/2018 Foru Dekretua aldatzen duena. Foru dekretu horren bidez, ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren katastro-balioa finkatzeko arau teknikoak onartzen dira.

**-2018-**

**8/2018 Foru Araua, abenduaren 27koa**, Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2019. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.(2018ko abenduaren 31ko BAO, 250 zk).

**7/2018 Foru Araua, abenduaren 12koa**, zeinaren bidez Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-araudia egokitzen baita abenduaren 28ko 10/2017 Legeak Ekonomia Itunean eginiko aldaketetara. (2018ko abenduaren 28ko BAO, 249. zk.).

**6/2018 Foru Araua, abenduaren 12koa**, Bizkaiko Lurralde Historikoko kooperatiben araubide fiskalari buruzkoa.(2018ko abenduaren 28ko BAO, 249. zk.).

**5/2018 Foru Araua, abenduaren 21ekoa**, Interes-gatazkei eta Bateriaezintasunei buruzkoa. (2018ko abenduaren 12ko BAO, 2038. zk.).



#### Gipuzkoako Lurralde Historikoa

**3/2019 Foru Araua, otsailaren 11koa**, 2019. urterako zerga-neurriak onartzen dituena. (2019ko otsailaren 20ko GAO, 35. zk.).

**2/2019 Foru Araua, otsailaren 11koa**, Gipuzkoako Lurralde Historikoan kultur mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriak arautzen dituena. (2019ko otsailaren 20ko GAO, 35. zk.).

**1/2019 Foru Araua, otsailaren 11koa**, sozietateen gaineko zergan kultura sustatzeko pizgarriak aldatzen dituena. (2019ko otsailaren 20ko GAO, 35. zk.).

**-2018-**

**7/2018 Foru Araua, abenduaren 21ekoa**, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2019. urterako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena. (2018ko abenduaren 27ko GAO, 248. zk.).

**5/2018 Foru Araua, azaroaren 12koa**, herritarren partaidetzari buruzkoa. (2019ko otsailaren 4ko GAO, 15. zk.).



#### Nafarroako Foru Komunitatea

- **1/2019 Legegintzako Foru Dekretua**, urtarrilaren 30ekoa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena. (2019ko otsailaren 14ko NAO, 25. zk.).

- **4/2019 Foru Legea, otsailaren 4koa**, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako. (2019ko otsailaren 14ko NAO, 25. zk.).

- **3/2019 Foru Legea, urtarrilaren 24koa**, Nafarroako Toki Ogasuneari buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena. (2019ko otsailaren 6ko NAO, 25. zk.).

- **2/2019 Foru Legea, urtarrilaren 24koa**, Nafarroako 2017ko Kontu Orokorrei buruzkoa. (2019ko otsailaren 6ko NAO, 25. zk.).

- **1/2019 Foru Legea, urtarrilaren 15ekoa**, Nafarroako Eskubide Kulturelei buruzkoa. (2019ko urtarrilaren 25eko NAO, 17. zk.).

**-2018-**

- **30/2018 Foru Legea, abenduaren 27koa**, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzkoa. (2018ko abenduaren 31ko NAO, 250. zk.).

- **29/2018 Foru Legea, abenduaren 26koa**, Nafarroako Memoria Historikoaren Tokiei buruzkoa. (2018ko abenduaren 31ko NAO, 250. zk.).

- **28/2018 Foru Legea, abenduaren 26koa**, Nafarroan etxebizitzarako eskubide subjektiboa arautzen duena. (2018ko abenduaren 31ko NAO, 250. zk.).

- **27/2018 Foru Legea, abenduaren 24koa**, 2019rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. (2018ko abenduaren 31ko NAO, 250. zk.).

## BESTE AUTONOMIA ERKIDEGO BATZUETAKO TOKIKO EREMUARI BURUZKO LEGEDIA

### ARAGOIKO AUTONOMIA ERKIDEGOA

- **4/2019 Lege-dekretua, urtarrilaren 30ekoa**, Aragoiko Gobernuarena, planen eta proiektuen interes orokorra aitortzeko erraztasunak jartzen dituzten premiazko neurri buruzkoa. (2018ko otsailaren 1eko BOA, 22. zk.).

- **3/2019 Lege-dekretua, urtarrilaren 15ekoa**, Aragoiko Gobernuarena, Aragoiko Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren eremuan ordainsarien gaineko premiazko neurriak onartzen dituena. (2019ko urtarrilaren 18ko BOA, 12. zk.).

**-2018-**

- **18/2018 Legea, abenduaren 20koa**, Aragoiko Autonomia Erkidegoan sexu-orientazioaren, genero-nortasunaren edo -adierazpenaren ziozko diskriminazioaren kontrako babes integralerakoa eta berdintasunerakoa. (2019ko urtarrilaren 11ko BOA, 7. zk.).

- **17/2018 Legea, abenduaren 4koa**, Aragoiko ikerketa eta berrikuntzarakoa. (2019ko abenduaren 19ko BOA, 244. zk.).

### ASTURIASKO PRINTZERRIAREN AUTONOMIA ERKIDEGOA

**-2018-**

- **Asturiasko Printzerriaren 14/2018 Legea**, abenduaren 28koa, 2019rako aurrekontu orokorre buruzkoa. (2018ko abenduaren 31ko BOPA, 301. zk.).

- **Asturiasko Printzerriaren 13/2018 Legea**, abenduaren 21ekoa, aldi baterako ezintasun-egoeretako ordainsari-araubideari buruzko Funtzio Publikoaren antolamendurako Asturiasko Printzerriaren abenduaren 26ko 3/1985 Legea aldatzekoa. (2018ko abenduaren 31ko BOPA, 301. zk.).

- **Asturiasko Printzerriaren 12/2018 Legear**, azaroaren 23koa, garraio eta mugikortasun iraunkorrari buruzkoa. (2018ko abenduaren 4ko BOPA, 281. zk.).

### BALEAR URTEETAKO AUTONOMIA ERKIDEGOA

- **6/2019 Legea, otsailaren 8koa**, Balear Uharteetako jardueren instalazio, sarbide eta ekitaldirako araubide juridikoaren azaroaren 26ko 7/2013 Legea aldatzen duena.

- **4/2019 Legea, urtarrilaren 31koa**, Balear Uharteetako mikrokooperatibei buruzkoa. (2019ko otsailaren 9ko BOIB, 18. zk.).

- **3/2019 Legea, urtarrilaren 31koa**, Balear Uharteetako nekazaritzari buruzkoa. (2019ko otsailaren 9ko BOIB, 18. zk.).

- **1/2019 Legea, urtarrilaren 31koa**, Balear Uharteetako Gobernuari buruzkoa. (2019ko otsailaren 2ko BOIB, 15. zk.).

**-2018-**

- **14/2018 Legea, abenduaren 28koa**, 2019rako Balear Uharten autonomia-erkidegoko aurrekontu orokorre buruzkoa. (2019ko abenduaren 29ko BOIB, 163. zk.).

### KANARIETAKO AUTONOMIA ERKIDEGOA

- **2/2019 Legea, urtarrilaren 30ekoa**, Fuerteventurako Irlako Kabildoan Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen hamalagarren xedapen gehigarrian aurreikusitako Kanarietako Irletak Kabildoen Antolaketarako Araubide Berezia aplikatzeko. (2019ko otsailaren 8ko BOC, 27. zk.).

**-2018-**

- **7/2018 Legea, abenduaren 28koa**, Kanarietako Autonomia Erkidegoko 2019rako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. (2018ko abenduaren 31ko BOC, 252. zk.).

- **4/2018 Legea, azaroaren 30ekoa**, Kanarietan etxebizitza eskuratzeko aukerak hobetzeko zerga-neurri buruzkoa. (2018ko abenduaren 4ko BOC, 235. zk.).

### KANTABRIAKO AUTONOMIA ERKIDEGOA

**-2018-**

- **9/2018 Legea, Kantabriakoa, abenduaren 21ekoa**, abenduaren 21ekoa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideak bermatzeko. (2019ko urtarrilaren 11ko BOC, 8. zk.).

- **10/2018 Legea, abenduaren 21ekoa, Kantabriakoa**, Kantabriako Autonomia Erkidegoko 2019. urterako aurrekontu orokorre buruzkoa. (2018ko abenduaren 28ko BOC, aparteko 40. zk.).

- **11/2018 Legea, Kantabriakoa, abenduaren 21ekoa**, zerga- eta administrazio-

neurri buruzkoa. (2018ko abenduaren 28ko BOC, aparteko 40. zk.).

#### GAZTELA MANTXAKO AUTONOMIA ERKIDEGOA

##### -2018-

- **Ley 5/2018, de 21 de diciembre**, desgaitasuna duten eta laguntza-txakurrak erabiltzen dituzten pertsonak inguruan aritzeko aukerei buruzkoa. (2018ko abenduaren 27ko DOCM, 251. zk.).
- **6/2018 Legea, abenduaren 21ekoa**, Gizarte Zerbitzuen Bermeen Plana aplikatzeko neurri osagarri buruzko otsailaren 21eko 1/2012 Legea aldatzen duena. (2018ko abenduaren 27ko DOCM, 251. zk.).

#### GAZTELA ETA LEONGO AUTONOMIA ERKIDEGOA

- **2/2019 Legea, otsailaren 14koa**, Gaztela eta Leongoko herritarren babeserako martxoaren 28ko 4/2007 Legea aldatzen duena. (2019ko otsailaren 20ko BOCYL, 35. zk.).
- **2018-**
- **9/2018 Legea, abenduaren 20koa**, Gaztela eta Leongoko bidaiarien errepide bidezko garraio publikoari buruzkoa. (2018ko urtarrilaren 3ko BOCYL, 2. zk.).
- **8/2018 Legea, abenduaren 14koa**, Gaztela eta Leongo Ganberen Kontseilua eta Gaztela eta Leongo Merkataritza, Industria eta Zerbitzuen Ganbera Ofizialak arautzen dituena. (2018ko abenduaren 27ko BOCYL, 249. zk.).
- **7/2018 Legea, abenduaren 14koa**, Diputazioko burutza eta alkatetzen titularren konferentzia, tokiko erakundeetako kideen estatutua eta osoko bilkuretako informazioa arautzen dituena. (2018ko abenduaren 27ko BOCYL, 249. zk.).

#### EXTREMADURAKO AUTONOMIA ERKIDEGOA

- **3/2019 Legea, urtarrilaren 22koa**, Extremadurako udal-autonomia bermatzekoa. (2019ko urtarrilaren 28ko DOE, 18. zk.).
- **2/2019 Legea, urtarrilaren 22koa**, Extremadurako Autonomia Erkidegoko 2019. urterako aurrekontu orokorre buruzkoa. (2019ko urtarrilaren 24ko DOE, 16. zk.).
- **2018-**
- **13/2018 Legea, abenduaren 26koa**, Extremaduran arlo sozial, sanitario eta soziosanitarioan pertsonen zerbitzuak emateko gizarte-itunei buruzkoa. (2018ko abenduaren 31ko DOE, 252. zk.).
- **12/2018 Legea, abenduaren 26koa**, Extremadurako kontratazio publiko sozialki arduratsuari buruzkoa. (2018ko abenduaren 28ko DOE, 251. zk.).
- **11/2018 Legea, abenduaren 21ekoa**, Extremadurako lurraldearen eta hirigintzaren antolamendu iraunkorri buruzkoa. (2018ko abenduaren 27ko DOE, 250. zk.).

#### GALIZIAKO AUTONOMIA ERKIDEGOA

##### -2018-

- **2/2018 Legea, abenduaren 26koa**, Galiziako Autonomia Erkidegoko 2019. urterako aurrekontu orokorre buruzkoa. (2018ko abenduaren 28ko DOC, 247. zk.).
- **3/2018 Legea, abenduaren 26koa**, zergen eta administrazioaren arloko neurri buruzkoa. (2018ko abenduaren 28ko DOG 247. zk.).

#### MADRILGO AUTONOMIA ERKIDEGOA

##### -2018-

- **9/2018 Legea, abenduaren 26koa**, Madrilgo Erkidegoko 2019. urterako aurrekontu orokorre buruzkoa. (2019ko abenduaren 28ko BOCM, 309. zk.).
- **8/2018 Legea, abenduaren 26koa**, Isabel II.a Kanalaren izaera publikoa bermatzeko zerga eta administrazioaren arloko neurri buruzko abenduaren 29ko 3/2008 Legea aldatzen duena. (2019ko abenduaren 28ko BOCM, 309. zk.).
- **7/2018 Legea, abenduaren 26koa**, Madrilgo Erkidegoko Haurren Hertz Arretarako Programa sortzeko eta aho eta hortzetako osasuna artatzekoa. (2019ko abenduaren 28ko BOCM, 309. zk.).
- **6/2018 Legea, abenduaren 19koa**, Madrilgo Erkidegoko Zerga Neurri buruzkoa; horren bidez aldatu egin da Madrilgo Erkidegoko legezko xedapenen testu bategina Estatuak lagatako zergen gainean, urriaren 21eko 1/2010 Legegintza Dekretuak onartua bera. (2019ko abenduaren 28ko BOCM, 309. zk.).

#### MURTZIAKO ESKUALDEA

##### -2018-

- **14/2018 Legea, abenduaren 26koa**, Murtziako Eskualdeko Autonomia Erkidegoko 2019. urterako aurrekontu orokorre buruzkoa. (2019ko urtarrilaren 3ko BORM, 2. zk.).

#### VALENTZIako AUTONOMIA ERKIDEGOA

- **1/2019 Legea, otsailaren 5koa**, Generalitatearena, Valentziako Erkidegoko lurraldea, hirigintza eta paisaia antolatzekeko uztailaren 25eko 5/2014 Legea aldatzen duena. (2019ko otsailaren 7ko DOGV, 8481. zk.).
- **2018-**
- **28/2018 Legea, abenduaren 28koa**, Generalitatearen 2019ko ekitaldirako aurrekontuei buruzkoa. (2018ko abenduaren 31ko DOGV, 8454. zk.).
- **27/2018 Legea, abenduaren 27koa**, Generalitatearen zerga-neurri eta administrazio- eta finantza-kudeaketa eta antolamendu-kudeaketako neurri buruzkoa. (2018ko abenduaren 28ko DOGV, 8453. zk.).
- **26/2018 Legea, abenduaren 21ekoa**, haurren eta nerabeen eskubide eta bermei buruzkoa. (2018ko abenduaren 24ko DOGV, 8450. zk.).

## JURISPRUDENZIA

### Konstituzio Auzitegia

**9/2019 epaia, 2019ko urtarrilaren 17koa.** Osoko Bilkura. Epaitu aurreko arazoa, baliozkotasunari buruzkoa (3790-2018). EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak planteatu du, Arabako Batzar Nagusien uztailaren 9ko 24/2014 Foru Arauak (energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren



gainen zergari buruzkoak) azken xedapenetatik lehenean adierazitakoa dela-eta. Zerga-arauen atzeraeraginaren eta segurtasun juridikoaren printzipioa: zergen foru-arauaren ondorio juridikoak hura indarrean jarri aurreko une batean jartzen duen xedapenaren konstituzionaltasuna.

**6/2019 epaia, 2019ko urtarrilaren 17koa.** Osoko Bilkura. 3323-2017 zenbakiko konstituzio-kontrakotasunaren auzia. Gaztela eta Leongo Justizia Auzitegi Nagusiaren Lan Arloko Salak (Valladoliden egoitza duenak) planteatua, prozedura zibilaren Legearen 152.2. artikuluko azken tartekiaren harira, urriaren 5eko 42/2015 Legeak emandako idazkuntzan. Babesgabeziarik gabeko tutoretza judizialerako eskubidea: abisu bat benetan bidaltzeko komunikazio judizialen egintzen baliozkotasuna mugatzen duen legezko aginduaren konstituzionaltasuna, egintza horiek bidali direla prozesuetako ordezkarietarako jakinarazten zaienean. Boto partikularra.

**137/2018 epaia, 2018ko abenduaren 13koa.** Osoko Bilkura. 4449-2018 konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsua. Gobernuak buruak jarria azaroaren 30ko 10/2017 Legeak (Aragoiko Gorteenak, Aragoiko hiriburu gisa Zaragoza udalerriaren araubide bereziari buruzkoak) 14.1) artikuluan ezarritakoaren arabera. Tokiko araubidearen gaineko eskumenak: estatuko oinarriko araudiaren aurka egiten duen eta osorik Zaragoza udalerriarena den kapitalarekin lotutako merkataritza-sozietateetako gobernuaren gainean udalak duen asmoa adierazteko eskumena udalbatzako osoko bilkurari kentzen dion erkidegoko legezko aginduaren balioabetasuna.

**132/2018 epaia, 2018ko abenduaren 13koa.** Osoko Bilkura. 3774-2016 konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsua. Kataluniako Generalitateko Gobernuak jarritakoa, urriaren 1eko 40/2015 Legearen (sektore publikoko araubide juridikoari buruzkoaren) zenbait xedapenen aurka. Administrazio publikoen, funtzio publikoaren eta tokiko administrazioaren araubide juridikoaren gaineko eskumenak: hitzarmenen ebazpenen ondorioak ezartzeko finkatutako behin betiko epeen konstituzionaltasunik eza. Boto partikularra.

**125/2018 epaia, 2018ko azaroaren 26koa.** 5988-2017 babes-errekurtsua. Marta Menéndez Luque andreak sustatua Andaluziako Justizia Auzitegi Gorenak (egoitza Sevillan) eta Cadizko Lan Arloko Epaitegiak kaleratzen ziozko prozesuetan hartutako epaiekin lotuta. Ordezkaritza-funtzioak betetzeko eskubidea urratzea: Andaluziako Autonomia Erkidegoko enpresa publiko batetik kaleratzea absentismoaren ondorioz, Cadizko Udaleko osoko bilkuretan parte hartzearen orduak lan egin gabeko orduak direla ulertuta, udalbatzako horretakoa delarik langilea, bertan zinegotzia baita.

**122/2018 epaia, 2018ko urriaren 31koa.** Osoko Bilkura. 4710-2017 konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsua. Unidos Podemos-En Comú Podem-En Marea Parlamentu Talde Konfederaleko berrogeita hamar diputatuk jarria Diputatuen Kongresuan, ekainaren 27ko 3/2017 Legeko (Estatuaren 2017. urterako aurrekontu orokorreari buruzkoa) hainbat agindutan ezarritakoaren gainean. Aurrekontuen legeen gaineko muga materialak: sektore publikoan lan-kontratupeko langileak sartzearen eta administrazio publikoei eta horien menpeko erakundeei laneko kontratazioa erabiltzearen ziozko erantzukizunak eskatzearen gaineko mugei buruzko aginduak aurrekontuen legean sartzearen balioabetasuna.

## Auzitegi Gorena eta EAEko Justizia Auzitegi Nagusia

**Auzitegi Nagusiaren 41/2019 epaia,** 2019ko urtarrilaren 21ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala. 5225/2017 zenbakiko kasazio-errekurtsua ebatzi du, honen aurka jarria: **EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 291/2017 epaia, Administrazioarekiko Auzien Salaren lehen atala.** Ibilgailuak gidariaren errentatzeko baimenen emakida ukatzea (mota: VTC). 132/2016 Foru Agindua, martxoaren 3koa, Arabako Foru Aldundiko bide-azpiegituren eta mugikortasunaren diputatuarena.

**Auzitegi Gorenarena autoa, 2019ko urtarrilaren 16koa;** auto horrek onartu egiten ditu RCA/4191/2918 zenbakiarekin izapidetutako kasazio-errekurtsuak, Gipuzkoako Batzar Nagusien eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren prozesu-ordezkariek prestatu dituztenak honako honen aurka: **EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 119/2018 epaia, 2018ko apirilaren 9koa, administrazioarekiko auzien salaren lehen atala.**

**Auzitegi Nagusiaren 1087/2018 epaia, 2018ko abenduaren 19koa.** Lan Arloko sala. Diziplinazko kaleratzen eta kontratua iraingitzearen ziozko ekintzak metatzen direnerako izapideen ordainsariak (Lan Arloko Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 32. artikulua). Errekurritutako epaian gutzitza independentea da Langileen Estatuaren 50. artikulua arabera langileak eskatutako iraingitze-kausa (soldata ordaintzean errepikatu diren arau-hauste patronalak) eta aurkaratutako kaleratzearena (bezeroaren establezimenduan ustez salgaiak lapurtu izana). Aipatu epaian langilearen iraingitze-eskariaren eta kaleratze objektiboaren eskariaren atzean dagoen arrazoia berbera da (enpresako arazo ekonomikoak). Kontraesanik ez dago. Bat dator salaren doktrinarekin.

**1594/2018 Epaia, 2018ko azaroaren 7koa.** Auzitegi Nagusiarena. Administrazioarekiko Auzien Sala. Epaia irmoen kontrako berrikuspen-errekurtsua. Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 102.1.a) artikuluko arrazoia. Berreskuratutako agiriaren baldintzei buruzko jurisprudentzia-doktrina.

1516/2018 epaia, 2018ko urriaren 19koa. Auzitegi Nagusiarena. Zehapena. Bilboko Portuko Garraiolari Autonomoen Sindikatu Elkartea (ATAP). Zehapeneremua: elkarreak. Gomendio kolektiboak. Lehiaren defentsa. Honen aurka jarria: 2017ko maiatzaren 17ko epaia, EAeko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salaren lehen atalak ezarria, 78/2016 zenbakiko administrazioarekiko auzien errekurtsoan, 2016ko urtarrilaren 14ko ebazpenaren aurka.

## TOKI-ESPARRUA EUROPAN

 MAGENCdr

### Historia mediko elektroniko europarra jar dadila eskatu dute EBko hiriek eta eskualdeek

Eskualdeen Batzorde Europarrak aho batez babestu du Murtziako Eskualdeko buruaren, Fernando López Miras jaunaren, irizpena, Europan sektore sanitarioa digitalizatzeari buruzkoa.

[Informazio gehiago](#)

 Captura de pantalla 2019-02-14 a las 19.06.02

### Emakumearentzako Europa: hiriak, eskualdeak eta genero-berdintasunaren aldeko borroka.

Zein neurri har ditzakete tokiko eta eskualdeko agintariek emakumeen eguneroko bizitza eta politikan duten ordezkariak hobetzeko? "Emakumearentzako Europa" izeneko biltzarra ospatu zen iragan urtarrilaren 21ean, eta, bertan, 22 aditu eta tokiko lider batu ziren, gaur egungo Europako eskualdeetan emakumek bizi behar dituzten arazo larri batzuei irtenbideak aurkitzeko.

[Informazio gehiago  
\(ingelesez\)](#)

Eskualdeen Batzorde Europarraren irizpenak, 2018ko abenduaren 21eko DOUEn argitaratuak:

- (2018/C 461/02) — [Europari buruzko hausnarketak: eskualdeetako eta herrietako erakundeen ahotsa, Europar Batasunaren gaineko konfiantza berrezartzeko.](#)
- (2018/C 461/03) — [Laneko Agintaritza Europarraren sorrera.](#)
- (2018/C 461/04) — [EBko hiriek eta eskualdeek Aniztasun Biologikoaren Biltzarraren Aldeen 14. Konferentziara egindako ekarpena eta EBren Biodibertsitateari buruzko Estrategia 2020 ostean.](#)
- (2018/C 283/05) — [«Plastikorako estrategia europarra ekonomia zirkularrean» mintzagai duen komunikazioa.»](#)
- (2018/C 461/06) — [Kirola EBren agendan sartzea 2020 ostean](#)

## ARGITALPENAK

 UDALA-163

### UDALA 163. Udal Finantzaketaren Txostena

Udalen parte-hartzea zerga itunduetan  
2018-2019  
EUDEL  
azaroa, 2018


[Deskargatu](#)

 RASCAGPOP

### Pertsonak eta Antolakunde Publikoak Kudeatzeko Euskal Aldizkaria

15. zk.  
abendua, 2018  
IVAP


[Deskargatu](#)



#### Herri Ardularitzako Euskal Aldizkaria

RVAP 112. zk.  
Iraila-Abendua 2018  
IVAP, 2018

[Deskargatu](#)



#### Introducción al nuevo marco normativo de la protección de datos personales en el sector público

Egilea: Rafael Jiménez Asensio  
IVAP, 2019


[Informazio gehiago](#)



#### Espacio público y ordenanzas locales estudio sobre su régimen jurídico

Zuzendariak: José Ignacio Cubero Marcos e Iñaki Lasagabaster Herrarte  
IVAP, 2019

[Informazio gehiago](#)



#### Documentación Administrativa

Nueva época. 5. zk.  
INAP  
Urtarrila-Abendua, 2018

[Deskargatu](#)



#### Gestión y Análisis de Políticas Públicas

Nueva época -20-  
Monográfico Gobernanza y políticas de desarrollo urbano: teoría y práctica.  
Kordinatzaileak: Moneyba González Medina eta María Ángeles Huete García.  
2018ko azaroa

[Informazio gehiago](#)



#### Hacia una compra pública responsable y sostenible

Novedades Principales de la Ley de contratos del sector público 9/2017  
Egilea: José Antonio Moreno Molina  
Valentzia, 2018

[Informazio gehiago](#)



#### Anuario del Gobierno Local 2018

Contratación Pública y Administración Local  
Urtarrila, 2019  
Zuzendariak: Tomás Font i Llovet  
Alfredo Galán

[Informazio gehiago](#)



#### Cuadernos de Derecho Local aldizkaria

48. zk.  
Contratación pública

Informazio  
gehiago

Transparencia

Transparencia, innovación y buen  
gobierno en la contratación pública

Zuzendaria: Rubén Martínez Gutiérrez,  
Manuel Fernández Salmerón  
Tirant Lo Blanch editoriala  
Valentzia, 2019

Informazio  
gehiago

Captura de pantalla 2019-  
02-14 a las 19.11.57

Innovación pública en el ámbito local. Una  
aproximación a las metodologías y  
experiencias

Coordinador: Francisco Rojas Martín  
Red de Entidades Locales por la  
Transparencia y Participación Ciudadana  
FEMP, 2019

Informazio  
gehiago

Lopez-Mora

El nuevo contrato de concesión:  
riesgo operacional

Análisis a la luz de la Directiva 2014/23/UE  
María Eugenia López Mora  
Atelier, 2019

Informazio  
gehiago

Carta-local

Carta Local, 316. zk.

Movilidad sostenible  
Urtarrila, 2019  
Udalerrien eta Probintzien Espainiako  
Federazioa (FEMP)

Deskargatu

## DEIALDI INTERESGARRIAK

Captura de pantalla 2019-  
02-21 a las 21.39.04

Zeharkako Prestakuntza Plana  
EUDEL-IVAP 2019

2019ko zeharkako prestakuntza-planean 211  
ikastaro eta 7 tailer misto sartzen dira.

Informazio  
gehiago

logo-cncc

Kontratazio Publikoaren IV. Biltzarra

Lekua: Sevilla  
Eguna: 2019ko martxoak 21

Informazio  
gehiago

B-cumbre

Eskualdeen eta Hirien Europako 8. Goi Bilera

Demokrazia zuzena eta herritarren ekimena.  
Demokrazia inklusiboaren ekosistamarantz

**Tokia:** Bucarest

**Data:** 2019ko martxoaren 14 eta 15a

Informazio

gehiago



CLADen Nazioarteko XXIV. jardunaldia  
Estatuaren eta Administrazio Publikoaren  
erreformari buruzkoa

**Lekua:** Buenos Aires, Argentina.

**Eguna:** 2019 azaroak 12 - 15

Informazio  
gehiago